



Arartekoaren ebazpena, 2013ko urriaren 7koa. Horren bidez, Bilboko Udaltzaingoaren atestatu batek hura bideratzea eragin zuten gertaerak behar bezala adierazi ez zituela salatzen zen kexan izan duen jarduketa amaitzen da.

Aurrekariak

1. (...) jaunak Arartekoak esku hartzeko eskatu zuen, edari alkoholdunen eraginpean gidatzeagatik bide-segurtasunaren aurkako ustezko delitu batengatik atxilotzearen ondorioz Bilboko Udaltzaingoak prestatu zuen atestatuari dagokionez, uste baitzuen haren edukia ez zettorrela bat gertatukoarekin, hura bideratzea eragin zuten gertaerak zirela-eta [(...) zenbakiko atestatua].

Interesdunaren desadostasunak honako alde hauei lotuta zeuden funtsean: poliziaren esku-hartzea eragin zuten arrazoiei dagokienez bera atxilotu zuten udaltzainek atestatuan emandako adierazpena, herri bidean egin zuen alkoholemia probaren emaitza eta udaltzainek ibilgailuaren dokumentazioa aurkezteko eskatu ziotenean eman zuen erantzuna.

Kexagilearen arabera, poliziaren esku-hartzea abiarazi zen, bere ibilgailua txarto aparkatuta egoteagatik, alkoholemia probaren emaitza 0,67 mg-koa izan zen botatako litro aire bakoitzeko, eta bera izan zen autoaren dokumentazioa atera, eta udaltzainei erakutsi ziena, horiek eskatu ziotenean.

Hala ere, udaltzainek adierazi zuten poliziaren esku-hartzea abiarazi zela interesdunaren ibilgailua poliziaren ibilgailuaren aurretik zebilelako eta debekatutako zenbait maniobra egin zituelako, alkoholemia probaren emaitza 0,77 mg-koa izan zela botatako litro aire bakoitzeko, eta udaltzainak beraiek izan zirela dokumentazioa aurkitu behar izan zutenak, gidaria ez baitzen gai izan berak hartzeko, haren mozkorkeria eta nahasketa egoera zela-eta.

Gainera, interesdunak ukatzen zuen udaltzainek antzeman omen zituzten mozkorkeria zantzuak erakutsi izana.

2. Kexaren arabera, poliziaren bulegoetan kexagileari bide-segurtasunaren aurkako beste delitu bat leporatu zioten, bulego horietan alkohola detektatzeko probak egiteari ustez uko egin izanagatik.
3. Kexagileak adierazi zigun, bera atxilotu zuten udaltzainek atestatuan emandako gertaeren kontakizunarekin ados ez bazegoen ere, atxiloketaren ondoriozko prozedura judizialean salaketa-idazkiaren araberrako epaia, zehapena murriztea ahalbidetuko zuena, onartzea erabaki zuela, uste baitzuen, udaltzainek adierazpenen aurkako frogarik izan gabe, ia ez zegoela egoitza judizialean berak gertaerez zuen bertsioa atestatuaren bertsio ofizialaren aurrean gailentzeko aukerarik.





4. Kexa bideratzeko onartu ondoren (epaileak gaian esku hartu izanetik Ararteko erakunderako ondorioztatzen diren mugak, aurrerago adieraziko dugun bezala, izanda), Bilboko Udalera jo genuen, Arartekoaren *Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari* buruzko (II.1.1 idatz-zatia) urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean adierazitako arauei jarraiki hori iker zezan eta ikerketan garatutako jarduketan eta haien emaitzen berri eman ziezagun.

Laguntza eskaeran Udalari adierazi genion interesdunak eman zigun atestatuaren kopiak adierazten zuela alkohola detektatzeko probak egiteari uko egiteagatik haren aurka egin zen egoztea ez zela behar bezala aipatu dokumentu horretan eta zenbait diligentziatan hori adierazteko erabili zen moduak ulertarazten zuela atxilotuak probak herri bidean egiteari uko egin ziola, baina, atestatuaren beraren arabera, hori ez zela horrela gertatu.

Halaber, adierazi genion agiri horrek mahai gainean jarri zuela kexagilea atxilotu zuten agenteak atestatuan batera —eta ez banaka— egon zirela eta jarduteko modu hori eremu horretan jazo daitezkeen gehiegikeriak saihesteko aipatu gomendio orokorrean proposatu genituen urratsetatik aldentzen zela (II.2.3 idatz-zatia).

Aurreko egiaztapenak eta, kexagileak jakinarazitako kontuei dagokienez, aipatu den gomendioan adierazi bezala erakunde honek duen jarrera kontuan hartuta, gure ustez, Udalak kexaren xedea zen poliziaren jarduketa aztertu behar zuen, gomendioan atestatuaren edukiaren kontrolari, horiek betetzeko orduan diligentzia zaindu beharri eta udaltzainek jasotzen dituzten kexen eta salaketan kontrolari dagokienez adierazi genuen ikuspuntutik (II.1.2, II.2.3 eta III.6 idatz-zatiak).

Era berean, honako alderdi hauen berri emateko ere eskatu genion: a) aurreko ikuspegitik poliziaren jarduketaz egindako analisia; b) gomendio orokorrean helburu horretarako adierazi genuen guztia aplikatuta antolatu dituen prebentzio eta kontrol neurriak, hala badagokio; eta c) kexa eragin duten gertaerak azaltzeko eta kexagileak polizia jarduketaren zuzentasunari buruz sorrarazi dituen zalantzak argitzeko interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazio.

5. Gure eskaerari erantzuteko, Udalak kexagilea bere atxilotetaren ondorioz bideratu zen prozedura judizialean, Fiskaltzarekin adostutako erabakia oinarri hartuta, zigortu zutela, epaiak frogatutzat jotzen zituen gertaerek haren bertsioa desitxuratzen zutela eta prozedura judizialean horiei aurka egin ez ziela besterik ez zuen adierazi. Halaber, haren ustez, udaltzainen jarduketa zuzena izan zela adierazi zigun, epaian eta adostutako erabakian bertan oinarrituta.

Hala ere, ez zigun inolako informaziorik eman gertaerak ikertu izanari buruz edo guk galdetu genituen gainerako gaiei buruz.



6. Aipatutako informazioa ikusita, Udalera jo genuen berriro, eta erakunde honek urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean esku-hartze judizialaren kasuetan jarduteko eremuari buruz (II.1.1 idatz-zatia) adierazi zuen irizpena gogorarazi genion.

Era berean, adierazi genion, gure ustez, defentsarako benetako aukerak baloratu ondoren, kexagileak prozesuan Fiskaltzaren proposamenaren alde agertzea aukeratu izanak ez zuela jarrera hori aldatzen.

Hori oinarri hartuta, adierazi genion lehenengo laguntza eskaeran galdetu genituen gaiei ez erantzutea gure ustez ez zegoela justifikatuta eta Udalak guk eskatutako informazioa eman behar zigula.

7. Bigarren eskaera horri erantzuteko Udalak eman digun informazioak ere ez die erantzuten guk galdetutako gaiei, eta ez dauka alde handirik, funtsean, aurretik bidali zigunarekin.

Gogoetak

1. Ordenamendu juridikoak Arartekoari esleitzen dizkion prebentziozko funtzioen erabileran, erakunde honek hainbat neurri proposatu ditu, poliziaren jarduerak oinarrizko eskubideen errespetuarekin bat datozen parametroetara, jarduketa horiek arautzen dituzten arau eta protokoloetara eta administrazio onera egokitu daitezten. Bereziki azpimarratu dugun neurri horietako bat da poliziaren arduradunek ofizioz ikerketarako barneko prozedura bat abiarazteko premia, betiere, agenteren batek behin-behinean jarduera desegokiren bat bideratu duela jakinez gero, gertatutakoa aztertzeke, jarduera hori behar bezalako bideetatik jazo ote zen egiaztatzeke eta, hala badagokio, neurri egokiak, diziplina neurriak edo beste izaera batekoak hartzeke.

Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistema delakoari buruzko urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean horren inguruko gure ikuspuntua jasotzen da (II.1.1 idatz-zatia), agirian bertan azaltzen denez, erakunde honek zentzu berean egindako aurreko beste gomendio eta erabakietatik sortutakoa.

Gomendioan poliziaren ikerketa prozedura penal batekin batera gertatzen deneko kasua aztertu dugu, eta kasu horretan erakunde honek esku hartzeko duen eremua mugatu dugu.

Kontu horietako lehenengoari dagokionez zera aipatu dugu:

“Ohikoa da, polizia jarduerari buruzko kexak eragiten dituzten egitate batzuk, aldi berean, jurisdikzio penalaren azterketa pean egotea, esku-hartzea gertatu bitartean atxiloketa bat edo atxiloketarik gabeko egozte penal bat gertatu delako edo nahastutako pertsonak salaketa penala jarri dutelako polizien kontra, edo inguruabar biengatik.



Halako kasu askotan ohikoa da, halaber, gertakariak argitzeko egin duten ikerketari buruz galdetzen dugunean, administrazioek prozedura judizial bat izapidetzen ari direla eta egoera horrek ikerketa edo are Arartekoak jardun ahal izatea baldintzatzen duela esatea.

Zalantzarik gabe, kexa bat eragin duten gertakariengatik prozedura penal bat bideratzeak zenbait muga ezartzen dizkiela polizia administrazioei gai horretan, hala nola prozesuan epaitzen ari diren jokabideak zigortzeko galarazpena, zehapen ebazpena eman ahal izateko auzitegien epaiari itxaron beharra eta jurisdikzio ordena horretako epai irmo batek halakotzat jotzen dituen gertakariak frogatutzat jotzea. Hori dena, ordena penala administrazio ordenari nagusitzeko printzipioa aplikatzearen ondorioz.

Hala ere, uste dugu inguruabar horrek ezin diela galarazi administrazio horiei salatutako polizia jardura ikertzea ezta behar diren parametroen arabera izan dela egiaztatzea ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, gure iritziz, planteamendu horren alde egiten du, prozedura penala polizien aurkako den kasuei buruz hitz egiten duenean honela baitio: *"Euskal Herriko Poliziako kideen aurkako prozedura penala hasteak ez du galaraziko egitate horiengatik lehenagoko argibideak edo legokiokoen diziplina espedientea agintzea eta, beharrezkoa balitz, espedientea egin zaienak behin-behinean kargugabetu eta egokiak diren gainerako badaezpadako neurriak hartuko dira. Halarik ere, prozedura horiek ez dira behin betiko ebatziko arlo penaleko epaia irmoa izan arte, eta hark dakarren egitate frogatuen adierazpenak administrazioa lotuko du"* (9.15 art.).

Halako kasuetan funtsezkoa da prozedura penalean zer epaitzen den zehazki ezagutzea. Gure ikuspegitik, ez da berdin polizia funtzionarioen portaera ala poliziaren esku-hartzea dela-eta egindako argiketan jasotako gertakariak izatea.

Bigarren kasuan, auzitegiak ez du kexa eragin duen polizia jardura aztertzen, delitua edo hutsegitea leporatzen zaion pertsonaren portaera baizik eta, beraz, ikertu beharreko gaien ez legoke auzitegien esku-hartze zuzenik.

Argiketan jasotako egitateak epaitzen direnean, gainera, egotzitako pertsonaren absoluzioa poliziaren esku-hartzearen desegokitasun edo gehiegikeria zantzua izan liteke, baina haren kondenak ez luke inolaz ere esan nahi poliziaren portaera egokia izan zenik. Elkar orekatzen ez duten legez kontrako jardura bi batera gertatzea baino ez litzateke.

Polizien aurkako salaketa judiziala egondako kexa askotan, auzitegien epaiaren ondoren ez zaio ikerketari berrekiten salaketa artxibatzen bada edo epaia absoluziokoa bada.

Berriz esan behar dugu gertakari askok garrantzi penalik ez izateak ez dakarrela berez polizia jardueraren zuzentasuna, bete behar zituen arauen arabera izanaren ikuspegitik, ezta bestelako erantzukizunik ez egotea ere, hala nola diziplinakoa, epaitzeko eremu desberdinak direlako.

Hori guztia dela-eta, uste dugu justiziak esku hartzen duen kasuetan polizia agintariak hastapeneko ikerketa bat egin behar dutela, adierazi dugunaren arabera, eta epaiaren ondoren ere poliziaren portaeraren azterketa zorrotza egin behar dutela, arlo penalean egindako epaiketa adierazitako ikuspegitik egindako poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz." [II.1.1.b. atala]

Kasu horietan Arartekoaren esku-hartzearen esparruari dagokionez zera azaldu dugu:

"Arestian adierazi dugunez, Arartekoak eskatzen dienean administrazioek ez ikertzeko edo eskatutako informazioa ez emateko erabili ohi dituzten arazoietako





bat, gure esku-hartzea erabat arbuiatzea da, argudiatuz gertakariari lotutako prozedura penal bat ari dela izapidetzen.

Kexa eragin duen polizia jarduera berari lotutako gertakariengatik prozedura judicial penala izapidetzeak, jakina, muga handiak dakartzkio erakunde honi, batez ere otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulutik eratorriak, honela baitio: "Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritzza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko".

Hala ere, uste dugu artikulua horrek ez duela guztiz baztertzen gure esku-hartzea halako kasuetan. Zalantzarik gabe, jurisprudenzia penalak ezagutzeko gordetako kontu zehatzak aztertzea eta haiei buruzko iritzia ematea galarazten dizkigu. Baina, gure irizpidearen arabera, galarazpen horrek ez digu ukatzen halako kexetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio arloan jardutea, polizia arduradunei adierazi ditugun arauen arabera ikertzeko eskatuz eta arau horiek bete direla egiaztatuz.

Gure aburuz, aipatu manua ez da oztopoa erakunde honek polizia arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Ezta, gure iritziz, prozedura judizialean sartzen ez diren kexaren beste alderdiak aztertu edo kasuan Arartekoak euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei zuzendu dizkion beste gomendio orokorrak bete diren egiaztatu ahal izateko, herritarrei dagozkien eskubideen aurkako balizko jarduerak prebenitzeko lanaren esparruan.

Gure ustez, azken batean, inguruabar horrek ezin liteke oztopoa izan administrazioek helburu horrekin burutu dituzten jarduerak Arartekoari jakinarazteko.

Gure aburuz, daukagun interpretazioa bat dator Konstituzioak (art. 43 eta 54.) ezarritako askatasunak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko sistemarekin; izan ere, haren arabera jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta herriaren defendatzailea sistema itxeko tresnak dira. Hortaz, Konstituzioak osagarri eratzten ditu erakunde horiek, eta haien esku-hartze esparrua ordenamendu juridikoak bakoitzari emandako eginkizunen arabera dago ezarrita; beraz, haien jarduera bat etor liteke kasu berean, zeinek bere xedea izanda bada ere." [II.1.1.c atala].

Aurrekarietan adierazi bezala, erakunde honen ustez, defentsarako benetako aukerak baloratu ondoren eta kexaren xedea den poliziaren atestatuaren edukia ikusita, kexagileak prozesuan Fiskaltzaren proposamenaren alde agertzea, zehapena murriztea ahalbideetako zuena, aukeratu izanak ez du jarrera hori aldatzen funtsean.

2. Arartekoak espediente honetan izan duen jarduketa prebentzio eremu zorrotzean kokatu da, eta, gure ustez, epaileak gaian esku hartu izanetik Ararteko erakunderako ondorioztatzen diren mugak errespetatu ditu, lehen adierazi bezala.

Aurretik esan bezala, kexari emandako tratamendua gure ustez kasuari aplikatu behar zaizkion erakunde honen gomendioetara egokitu den egiaztatze eta, aldi berean, gomendio horiek nola betetzen dituen jakiteko behar dugun informazioa Bilboko Udalari eskatu baino ez dugu egin.

3. Urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean adierazi genuen poliziaren arduradunek poliziaren jarduketa desegoki baten edozein salaketaz edo arrazoizko seinalez egin behar duten ikerketa egokia eta nahikoa izan behar



dela gertaerak argitzeko, kasu guztietan epaileak dena delako gaian esku-hartzetik ondorioztatzen diren mugak errespetatuta. Halaber, adierazi genuen atestatuak salatutako gertaeren kontrakoa esateak ezin duela berez balio beste ikerketa jarduera batzuk egitea ukatzeko edo poliziaren jarduketaren egokitasunari buruzko iritzia oinarritzeko, eta nabarmendu genuen gogoeta horrek bere zentzu osoari heltzen diola, udaltzainek atestatuan gertaerez eman duten bertsioa zalantzan jartzen denean, kexa honekin gertatzen den bezala (II.1.1 idatz-zatia).

Aurrekarietan aipatu dugu Bilboko Udalak ez diola erantzun kexa ikertzeko eta garatutako ikerketaren edukiaren eta haren emaitzaren berri emateko egin genion eskaerari, eta ez duela justifikatu jarduteko modu hori. Udaltzainen jarduketa zuzena izan zela adierazi besterik ez du egin, kexagilea zigortu zuen epaiak frogatutzat jo dituen gertaeretan eta kexagileak egoitza judizialean gertaerei emandako adostasunean oinarrituta.

Nabarmendu behar dugu prozedura judizialean ez dela epaitu kexagileak kexan aipatu duen gaia, hau da, haren atxilotetaren ondorioz prestatu zen atestatuaren edukiak hori bideratzea eragin zuten gertaerak zehaztasunez adierazi zituen. Hori dela eta, gomendioan horretarako adierazitakoa kontuan hartuta, uste dugu ez litzatekeela argi eta garbi egongo kexa eragin duen eta benetan ikertu beharko litzatekeen gai zehatzari buruzko esku-hartze judizialik edo erabaki judizialik.

Aurretik esan bezala, kexagilea atxilotzetik ondorioztatutako prozedura judizialean emandako zigor epaia adostasun epaia izan da. Hori dela eta, logikoa da atestatuan adierazitako gertaeretan oinarritzea. Hala ere, gure ustez, zirkunstantzia horrek ezin die poliziaren arduradunei eragotzi udaltzainek atestatuan gertaerez emandako kontakizuna errealitatera egokitu zen ala ez ikertzea, hori kexaren xedea dela eta zigor bidean epaitu ez dela.

Halaber, uste dugu, prozedura bideratzea eragin zuten gertaerei buruz udaltzainek atestatuan egindako adierazpenekin ados ez egon arren, interesdunak epaiaren alde agertzea aukeratu izanak ezin izango lukeela ikerketa oztopatu, atestaturik ikusita defentsarako benetako aukerak baloratu ondoren.

Poliziaren arduradunek, hala denean, kexaren alde horiek argitzeko egin duten ikerketari buruzko informaziorik ezak —aurretik aipatutako arrazoiak direla-eta, gure ustez ez dago justifikatuta— puntu horretan Udala gomendio orokorrera egokitu ez dela ulertzerik eta, dokumentu horretan adierazitako araei jarraiki, kexa ikertzeko eskatzera behartzen gaitu.

Kexaren ikerketari dagokionez, derrigorrezkoa iruditu zaigu nabarmentzea interesdunari herri bidean egin zitzaion probak agertu zuen alkohol tasaren egiaztapena eta udaltzainek adierazitakoarekin erkatzea printzipioz erraza iruditzen zaigula, itxuraz erraz egiazta daitekeen gertaera objektiboa baita.



4. Urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean aditzera eman genuen poliziaren arduradunek kontrol bat gauzatu behar dutela atestatuaren edukia gainean, bereziki, horiek bideratzea eragin duten gertakarien kontaketa dagokionez (II.2.3 idatz-zatia).

“Azken urteotan zenbait pertsonak jo dute erakunde honetara euren aurka gindako argiketaren edukiarekin ados ez daudela adierazteko, haien ustez poliziek ez zutelako zintzotasunez islatu gertatutakoa, euren jardura eragin zuten gertakari dagokienez. Halaber, kexa batzuek arazo behar agertu dute poliziek arau-hauste administratiboengatik egindako salaketei buruz²⁵. Erreklamazioek horrela lotzen zituzten jokabidea eta polizien ondoren balizko polizia jardura desegokia zuzitzeko egindako ahalegina edo erakunde honek “kontrasalaketa” deritzona; funtsean, honakoan datza: poliziak, euren esku-hartzeak hura zalantzan jarri duen pertsonak kexa edo salaketa jartzea ekar dezakeela sumatzen dutenean, aurreratu eta haren aurkako salaketa egiten dute.

Oso kezkarria deritzogu halako portaera arbuigarriak gertatzeari. Badakigu ez dela erraza haiei aurka egitea, baina gertatzen direnean polizia eginkizunen gehiegikeria da eta eginkizun horiek betetzeko legezkoatasun itxuraren pean mozorrotu ohi dira. Jakin badakigu, arazoak sortzen direla arlo horretan gehiegikeria bat egin dela frogatzeko, hain zuzen ere, jardueraren legezkoatasun itxura horregatik. Horregatik jotzen dugu funtsezkotzat polizia arduradunak jakitun izatea ordenamendu juridikoak poliziei argiketa edo administrazio salaketa egiteko ematen dien ahalmena neurritz gain erabil daitekeela eta praktika horiek saihestu eta, gertatuz gero, antzeman ahal izateko kontrol tresnak ezartzea²⁶.

Horri buruz jaso dugun informazioa dela-eta, ulertzen dugu arlo horretan ez dela kontrol tresnarik ezarri eta berriz esan behar dugu egin behar dela.”

Halaber, gomendioan (26. oin-oharra) honako hau adierazi genuen:

“... gure iritziz aipatu arriskua saihesten laguntzeko oinarritzko eta funtsezko neurria da poliziak banaka agertzea argiketa egin behar duenaren aurrean eta ez denak batera, jaso ditugun datuen arabera maiz egiten denez.”

Nabarmendu behar dugu akusazioa finkatzeko eta frogatutako gertaeren erlazioa zehazteko orduan atestatuari prozedura penaletan ematen zaion garrantzia, are gehiago epaiak adostasunez ematen direnean, kasu honetan gertatu den bezala.

Horregatik, behin eta berriz aipatu dugu beharrezkoa dela poliziaren arduradunek kontrol tresnak ezartzea, eremu horretan gehiegikeriak gertatzea eragozten dutenak eta horiek antzemateko aukera ematen dutenak.

Kexan gai hori agertzen zen, eta lehen adierazi dugun bezala, horrek Udaleri atestatuaren edukia adierazitako ikuspegitik aztertzeke eta egindako analisiaren eta gomendioa betetzeko ezarri dituen kontrol mekanismoen berri emateko eskatzera eramán gaitu.

Gainera, adierazi genion, kexagileak emandako dokumentazioaren arabera, atxiloketa gauzatu zuten udaltzainak atestatuan batera agertu zirela. Hori dela eta, uste genuen alde horri buruz adierazi genuen arautik aldendu zela.



Aurrekarietan aipatu bezala, Udalak ez digu gai horiei buruzko informaziorik eman, eta ez du jarduteko modu hori justifikatu.

Gure ustez bidegabea den informaziorik ezak pentsarazten digu udal jarduketa puntu horretan ez dela egokitu aipatutako gomendiora eta Udalak ez dituela ezarri dokumentu horretan aipatu genituen kontrol mekanismoak.

Halaber, poliziaren jarduketa ikuspegi horretatik aztertzeke eta aipatutako mekanismoak ezartzeko eskatzera behartu gaitu.

5. Urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean adierazi dugu polizia funtzionarioek atxilotetari lotutako erregistro eta izapide guztiak betetzeko orduan diligenzia zaindu behar dutela, horiek jarduketa hori nola garatu den ahalik eta zehaztasun handienaz ager dezaten (III.6 idatz-zatia).

Kexan mota horretako gai bat ere sortu zen, aurrekarietan adierazi den eta jarraian arrazoituko dugun bezala, uste baitugu, esku artean ditugun datuak ikusita, kexagilearen atxilotetari lotutako zenbait jarduketa ez direla behar bezala adierazi atestatuan.

Interesdunak emandako dokumentazioaren arabera, bera atxilotu zuten udaltzainek adierazpenean egiaztatu zuten kexagileak ez ziola uko egin froga egiteari. Izan ere, honako hau esan zuten: *"Ez die eragozpen fisikorik egin eskaerei, eta froga egin du atxilotetaren tokian bertan"* (atestatuaren 03 zenbakiko orria). Dokumentazio hori kontuan hartuta, ekintza horretan udaltzainek kexagileari egindako frogak agertu zuen alkohol tasari eta froga hori egiteko erabili zuten etilometroaren ezaugarri buruzko informazioak berak agerian utzi du froga egin zela.

Hala ere, dokumentazio horren arabera, atxilotua poliziaren bulegoetan aurkezteko aktan honako hau adierazi zen: *"2011ko apirilaren 11ko 0:20 direla, (...) udaltzainek bulegoetara bertaratuta jakin dute bide-segurtasunaren aurkako ustezko bi delitu gauzatu direla, edari alkoholduen eraginpean gidatzeagatik eta froga etilometrikoak egiteari uko egiteagatik, Elkano kalearen eta Hurtado de Amézaga kalearen arteko bidegurutzean"* (atestatuaren zenbakirik gabeko orria).

Gertaeren deskribapen hori ez dator bat atestatuak adierazitakoarekin, ustezko bigarren delitu horrengatik egozteko gertatzeko uneari dagokionez. Izan ere, dokumentu horretan arabera, beranduago gertatu zen, kexagilea dagoeneko poliziaren bulegoetan zegoenean, hain zuzen.

Horrez gain, poliziaren bulegoetan alkohola detektatzeko frogak egiteko eskaeraren diligenziaren (atestatuaren 09 zenbakiko orria), kexagileak eman zigunaren, arabera, diligenzia horretan adierazi zen gertaeren tokian alkoholemia froga egiteko eskatu ziotela, baina ez zen adierazi berak froga egin zuela. Hori dela eta, diligenzia horren testuinguruan eta, hori oinarri hartuta,



interesdunaren aurka arrazoi horrengatik egin den egoztearen testuinguruan, ukoa herri bidean ere gertatu dela ematen du aditzera, nahiz eta datu hori okerra izan. Gainera, berriro adierazi nahi dugu, atestatuaren beraren arabera, hori ez omen zela horrela gertatu.

Aurretik adierazi bezala, Udalak ez dio erantzun, aurreko egiaztapenak ikusita, atestaturik ikuspegi horretatik aztertzeke eta egindako analisiaren eta, hala denean, gomendioaren idatz-zati hori betetzeke hartu dituen neurrien berri emateke egin genion eskaerari, eta ez du jarduteke modu hori justifikatu.

Gure ustez bidegabea den informaziorik ezak pentsarazten digu udal jarduketa puntu horretan ez dela egokitu aipatutako gomendiora eta Udalak ez dituela ezarri dokumentu horretan aipatu genituen kontrol neurriak.

Halaber, poliziaren jarduketa ikuspegi horretatik aztertzeke eta aipatutako neurriak ezartzeko eskatzera behartu gaitu.

6. Aurreko beste gomendio batzuk abiapuntu hartuta, ustez zuzenak ez diren jarduketak direla-eta agenteek jasotzen dituzten salaketen eta kexen kontrol kuantitatiboa eta kualitatiboa egin beharra ere azpimarratu dugu urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean, baita zio horrengatik izapideturiko barne espedienteenak ere. Hartara, agente horiengan metatzen diren, kausak zein diren, errepikatzen diren, etab. aztertuko behar da. Eta azpimarratu dugu bide hori aplikatzearen ondorioz lortutako datuak kontuan hartu beharko lirartekeela kexa berri baten ikerketan, beste batzuekin erkatu beharko lirartekeen zantzuak besterik ez badira ere (II.1.2 idatz-zatia).

Bilboko Udalak ez dio erantzun kexa eragin duen poliziaren jarduketa ikuspegi horretatik aztertzeke eta egindako analisiaren eta, hala denean, gomendioa betetzeke hartu dituen neurrien berri emateke egin genion eskaerari, eta ez du jarduteke modu hori justifikatu.

Gure ustez bidegabea den informaziorik ezak pentsarazten digu udal jarduketa puntu horretan ez dela egokitu aipatutako gomendiora eta Udalak ez dituela ezarri dokumentu horretan aipatu genituen kontrol mekanismoak.

Halaber, poliziaren jarduketa ikuspegi horretatik aztertzeke eta aipatutako kontrol mekanismoak ezartzeko eskatzera behartu gaitu.

Horrengatik guztiagatik, Bilboko Udalak erakunde honek kexaren inguruan agertu dizkion gaiak emandako erantzuna kontuan hartuta eta unera arte eman ez zaigun informazioaren eskaera beste behin ere egiteak ezertarako balioko ez duela uste izanda, gaian izan dugun esku-hartzea amaitzea erabaki dugu, honako ondorio hauek aterata:





Ondorioak

1. Bilboko Udalak ez die behar bezala erantzun laguntza eskaerei; eskaera horiek kexari emandako tratamendua *Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari* buruzko urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean, kexen ikerketari, atestatuaren edukiaren kontrolari eta udaltzainek jasotzen dituzten kexen kontrolari dagokienez, ezarritako arauetara egokitu den egiaztatu ahal izateko eta gomendioa idatz-zati horietan (II.1.1, II.1.2, II.2.3 eta III.6 idatz-zatiak) betetzen ari den egiaztatze behar dugun informazioa emateko ziren.

Gure ustez bidegabea den informaziorik ezak pentsarazten digu kasu honetan Udalak ez duela bere jarduketa egokitu aipatutako arauetara.

Halaber, Udalak gomendioan xede horretarako aipatu genituen kontrol mekanismoak ezarri ez dituela ulertzea eraman gaitu.

2. Poliziaren arduradunek kexaren xedea den poliziaren jarduketa ikertu behar dute urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorraren arauari jarraiki (II.1.1 idatz-zatia).

Erakunde honen ustez, kexagilearen atxiloketaren ondorioz bideratu den prozedura judizialean adostasunaren arabera zigor epaia eman izanak ezin du eragotzi udaltzainek atestatuan gertaerez egindako kontakizuna errealitatera egokitu zen ala ez ikertzea, berriazko jarduketa hori, kexaren xedea dena, ez baita beste prozedura batean epaitu.

Halaber, uste dugu, prozedura bideratzea eragin zuten gertaerei buruz udaltzainek atestatuan egindako adierazpenekin ados ez egon arren, interesdunak epaiaren alde agertzea aukeratu izanak ezin izango lukeela ikerketa oztopatu, atestaturik ikusita defentsarako benetako aukerak baloratu ondoren.

3. Poliziaren arduradunek kexagilea atxilotu zuten udaltzainek atxiloketaren ondorioz bideratutako atestatuan egindako adierazpenak urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean adierazi genuen ikuspuntutik aztertu behar dituzte, atestatuaren edukia horiek eragiten dituzten gertaerei dagokienez errealitatera egokitzen dela kontrolatzeko (II.2.3 idatz-zatia).

Interesdunak eman digun kopian adierazi bezala, udaltzainak batera agertu ziren atestatuan, eta jarduketa hori eremu horretan gehiegikeriak saihesteko gomendioan adierazi genituen arauetatik aldentzen da.

4. Poliziaren arduradunek kexagilearen atxiloketaren ondorioz bideratutako atestaturik urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean adierazi genuen ikuspuntutik aztertu behar dute, atxiloketaren erregistroek jarduketa hori nola garatu den ahalik eta zehaztasun handienaz ager dezaten (III.6 idatz-zatia).





Interesdunak dokumentu horren kopia eman digu, eta horrek adierazi du haren aurka alkohola detektatzeko frogak egiteari uko egiteagatik egin zen egoztea ez zela behar bezala aipatu eta zenbait diligentzia adierazteko moduak ulertarazten zuela atxilotuak frogak herri bidean egiteari uko egin ziola, baina, atestatuaren beraren arabera, hori ez zela horrela gertatu.

5. Poliziaren arduradunek egiaztatu behar dute kexan aipatu diren udaltzainak aurreko beste kexa batzuetan aipatu diren, urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean (II.1.2 idatz-zatia) adierazitakoaren ildotik, eta egiaztapen horren emaitza kontuan hartu behar dute, kexaren xedea den jarduketa aztertzean.
6. Udalak aipatutako gomendioak betetzen direla bermatzeko behar diren mekanismoak ezarri behar ditu.

